

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Zk-3729

101/2004 DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan badira txakurrei buruzko hainbat alderdi arautzen dituzten zenbait arau edo xedapen.

Dekretu honekin zuzenean lotuta, eta animalien identifikazioari dagokionez, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Agindua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan animaliak identifikatzeko metodo elektronikoen erabilera arautu zuena (1993ko maiatzaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 97 zk.); geroxeago, berriz, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 25eko Agindua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko txakurren identifikazioa arautu zuena (1993ko ekainaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 109 zk.).

Bestalde, Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legeak arau-esparru orokorra eman zion Euskal Autonomia Erkidegoari, txakurrekin eta bestelako animaliekin zerikusia duten egoeretan ezartzeko arau-esparrua, alegia.

Aipaturiko xedapen horiek guztiak behin indarrean zeudela, itsu-txakurrei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legea argitaratu zen. Lege horren helburua honako hau zen: ikusteko arazoak dituzten pertsonak —itsu nahiz bestelakoek—, itsu-txakurrez lagunduta, eta ezintasun hori ez duten pertsonen baldintza beretan, edozein leku publikotan edo erabilera publikoko edozein lekutan sartzeko duten eskubidea bermatzea.

Adierazitako arau-esparru horrekin guztiarekin, Eusko Legebiltzarrak, txakur jakin batzuekin gertatu diren gorabehera batzuk direla medio, gizarteak gero eta kezka handiagoa azaldu duela ikusirik, araudi bat egiteko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari. Araudi horren bidez, batetik, aipaturiko animaliak eta animalioak hazi eta saltzeko establezimenduak nola kontrolatu arautuko zen, eta bestetik, gure autonomia erkidegoko txakurren liburu genealogikoak eta txakur-trebatzaileen errolda arautuko zen. Azken bi puntu horiek animaliak babesteko Legearen erreformarekin batera jorratzea erabaki zen; gainerakoetarako, berriz, apirilaren 4ko 66/2000 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeko arauak eman zituen, argitaratu zen.

Apirilaren 4ko 66/2000 Dekretuak osatu egin zuen herritarrei eta animaliei beraiei traba eta kalterik ez eragiteko eta arazo horiek kontrolatzeko emanda zegoen

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

Nº-3729

DECRETO 101/2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La normativa que en la Comunidad Autónoma del País Vasco regula los diferentes aspectos referentes a los animales de la especie canina está compuesta por diversas disposiciones.

En lo que afecta mas directamente al presente Decreto, y en referencia a la identificación del animal, se publicó la Orden de 5 de mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la utilización de métodos electrónicos de identificación animal en la Comunidad Autónoma del País Vasco (Boletín Oficial del País Vasco N.º 97, de 26 de mayo de 1993), y la Orden de 25 de mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la identificación de los animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco (Boletín Oficial del País Vasco, N.º 109, de 11 de junio de 1993).

Por otro lado, la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, vino a dotar a la Comunidad Autónoma del marco general regulador de las diversas situaciones que afectan, entre otros, a los animales de la especie canina.

Con las disposiciones previamente citadas en vigor, se publica la Ley 17/1997, de 21 de noviembre de Perros Guía con el objeto garantizar el derecho al libre acceso de las personas con deficiencia visual, total o parcial, acompañadas de perros guía, a cualquier lugar público o de uso público en igualdad de condiciones con quienes no padecen dicha deficiencia.

Con el marco normativo expuesto, el Parlamento Vasco, haciéndose eco de la creciente preocupación que en los últimos tiempos se está dando en la sociedad a propósito de diversos incidentes acaecidos con determinados perros, instó al Gobierno a elaborar una normativa que regulara el control de estos animales y de los establecimientos de cría y venta, así como la regulación de los libros genealógicos caninos en el ámbito de nuestra Comunidad Autónoma y el censo de adiestradores de perros. Si bien estos dos últimos puntos quedaron pendientes para el momento en el que se abordara la reforma de la actual Ley de Protección de los Animales, respecto al resto se publicó finalmente el Decreto 66/2000, de 4 de abril, por el que se regula la tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El meritado Decreto 66/2000, de 4 de abril, vino a completar la reglamentación aquí existente dirigida a controlar y evitar en lo posible daños y molestias a los

araudia. Araudi horren barruan, arreta berezia jarri zitzaien «animalia arriskugarriak» deiturikoei; izendapen hori aldatu egingo da xedapen honen bidez: «baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko txakurrak» izango dira.

Bestalde, estatu mailan, eta segurtasun publikoari dagokionez, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuak honako hauek ezarri ditu: animalia arriskutsuen kategorian sartu behar diren txakurren katalogoa, dagokion lizentzia administratiboa lortzeko neurriak eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak maneiatzeko eta zaintzeko gutxieneko neurriak.

Horregatik, eta gaiarekin lotutako araudiak aplikatu behar dituenak ahalik eta argitasun eta ziurtasun handienarekin joka dezan, xedapen orokor honen bidez, apirilaren 4ko 66/2000 Dekretua ordezkatu nahi da, txakurrak edukitzea zehaztasun handiagoarekin arautuko duen eta, bereziki, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrei dagokien, estatuko araudiaren oinarri diren segurtasun publikoari buruzko helburuak betetzen lagunduko duen beste Dekretu baten bidez. Horretarako, estatuko eta autonomia erkidegoko araudia testu bakar batean bildu beharra ikusi da; zenbait artikuluko arauditik ekarri dira, eta beharrezkoa izan denean, araudi horretara bidali da.

Honela dago osatuta testua: zazpi kapitulu, hiru xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, hiru xedapen indargabetzaille, azken xedapen bakarra eta bederatziranskin (0-VIII). I. eta II. eranskinak arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuaren I. eta II. Eranskinak izango dira.

Dekretu honen idazkuntzan Foru Aldundietako eta Euskal Udalerrien Elkarteko (EUDEL) ordezkariak parte hartu dute. Halaber, gaiarekin zuzeneko lotura duten erakunde eta sektore desberdinei kontsulta egin zaie, eta testua jendaurrean ipini da.

Horregatik guztiagatik, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko ekainaren 1ean egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

ciudadanos y a los propios animales. Dentro de esta reglamentación se prestaba especial atención a los que se clasificaban como «Animales de Riesgo», clasificación que es sustituida, en la presente disposición por «perros sometidos a condiciones especiales para su tenencia».

Por otra parte, en el ámbito estatal, y en lo que se refiere más específicamente al plano de la seguridad pública, el Real Decreto 287/2002, de 22 de marzo, por el que se desarrolla la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el régimen jurídico de la tenencia de animales potencialmente peligrosos, ha venido a establecer el catálogo de los animales de la especie canina que deben ser incluidos dentro de la categoría de animales potencialmente peligrosos, las medidas para la obtención de la correspondiente licencia administrativa y las medidas mínimas en cuanto al manejo y custodia de los animales potencialmente peligrosos.

Así lo dicho, y con el fin de dotar de la mayor claridad y certidumbre posible al aplicador de las diferentes normativas confluyentes en la materia, se opta a través de la presente disposición general por sustituir el anterior Decreto 66/2000, de 4 de abril, por otro que regule con más detalle la tenencia de perros en general, y contribuya, en cuanto a los potencialmente peligrosos en particular, al logro de los objetivos de la seguridad pública que sirven de base a la normativa estatal. Para ello, se ha visto la necesidad de refundir en un solo texto la normativa estatal y la autonómica transponiendo algunos artículos de la primera y realizando las oportunas remisiones a la misma.

El texto consta de siete Capítulos, tres Disposiciones Adicionales, tres Disposiciones Transitorias, tres Disposiciones Derogatorias, una Disposición Final y nueve Anexos numerados del 0 al VIII, correspondiendo así los Anexos I y II con los correlativos del Real Decreto 287/2002, de 22 de marzo, por el que se desarrolla la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el régimen jurídico de la tenencia de animales potencialmente peligrosos.

En la redacción del actual Decreto han coparticipado directamente representantes de las Diputaciones Forales y de la Asociación de Municipios Vascos-EUDEL. Asimismo, han sido consultadas las diferentes entidades y sectores más directamente afectados, habiendo sido igualmente sometida a información pública.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 1 de junio de 2004,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK*1. artikulua.*— Xedea eta aplikazio-eremua.

1.— Dekretu honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak (canis familiaris) edukitzearekin loturiko hainbat alderdi arautzea da; baita arriskutsuak izan daitezkeen, eta segurtasun publikoari buruzko estatuko araudia aplikatu behar zaien txakurren arrazarekin, arraza-tipologiarekin eta arraza arteko gurutzatzearekin loturiko alderdiak ere. Dekretu honen ondorioetarako, arraza kontzeptuaren barruan arraza-tipologiak sartuko dira.

2.— Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoan dauden edo dabilzan txakur guztiei aplikatuko zaie, baita itsu-txakurrei ere —itsu-txakurrei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legean ezarritakoa kontuan hartuta—.

2. artikulua.— Identifikatzeko eta erregistratzeko prozedura.

1.— Txakurren jabeek —zeinahi delarik ere jabetza-titulua— identifikatuta eta ohiko bizilekua duten udalerriko udaltxean erroldatuta eduki beharko dituzte txakurrak; horretarako, hilabeteko epea izango dute, txakurrak jaiotzen direnetik edota eskuratzen dituztenetik kontatzen hasita. Betebehar hori Euskal Autonomia Erkidegoan modu iraunkorrean bizi diren edo hiru hilabete baino gehiago daramatzaten txakurren jabeek izango dute.

2.— Honela egingo da identifikazioa: txakurraren lepoaren ezker aldean albaitari ofizial batek —forala edo udalerrikoa— edo horretarako gaitutako albaitari pribatu batek egindako mikrotxip edo elementu mikroelektroniko bat jarriko da.

Euskal Autonomia Erkidegoan animaliak identifikatzeko metodo elektronikoen erabilera arautu zuen Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduan ezarritakoari jarraituz egingo da identifikatze hori; halaber, Dekretu hau garatzerakoan ezar daitezkeen beste edozein arau ere kontuan izan beharko da.

3.— Albaitari pribatu batek identifikatze-prozesuan parte hartu nahi badu, Foru Aldundiari eskatu beharko dio horretarako gaitu dezan; honako hauek guztiak betetzen dituela egiaztatuta beharko du:

a) Albaitarien Elkargo Ofizialeko kide izatea.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES*Artículo 1.*— Objeto y ámbito de aplicación.

1.— La presente norma tiene por objeto regular, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, los diferentes aspectos de la tenencia de perros (canis familiaris), incluidos los correspondientes a las razas, tipologías raciales o cruces interraciales, cuyos ejemplares tengan la consideración de animales potencialmente peligrosos y, por lo tanto, les sea igualmente de aplicación la normativa estatal sobre seguridad pública. A los efectos del presente Decreto el concepto de raza comprenderá las tipologías raciales correspondientes.

2.— El presente Decreto será de aplicación a la totalidad de los animales de la especie canina que se hallen o circulen por la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como a los perros lazarillos sin perjuicio de lo establecido en el Ley 17/1997, de 21 de noviembre, de Perros Guía.

Artículo 2.— Procedimiento de identificación y registro.

1.— Los poseedores de perros que lo sean por cualquier título, deberán tenerlos identificados y censados en el Ayuntamiento del municipio de residencia habitual en el plazo de un mes desde el nacimiento o la adquisición siempre que se hallen de manera permanente o por periodo superior a tres meses en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.— La identificación se efectuará mediante la implantación, en la parte lateral izquierda del cuello del perro, de un microchip o elemento microelectrónico que será efectuada por veterinario oficial, foral o municipal, o por veterinario privado habilitado a estos efectos.

Dicha implantación se hará conforme a lo dispuesto en la Orden de 5 de mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la utilización de métodos electrónicos de identificación animal en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como a lo que se disponga en cualesquiera otras normas que, en desarrollo del presente Decreto, se pudieran establecer.

3.— El veterinario privado que desee participar en el proceso de identificación deberá solicitar la oportuna habilitación a la Diputación Foral correspondiente acreditando que cumple al menos los siguientes requisitos:

a) Estar colegiado en el Colegio Oficial de Veterinarios.

b) Estar al corriente en las obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social.

c) Identifikazioa egiteko ekipo homologatu egokia edukitzea.

Agiriak zuzen badaude, dagokion foru-organoak, gehenez, hiru hilabeteko epean ebatziko du; berariazko ebazpenik ematen ez bada, gaikuntza eman zaiola ulertuko da. Eman duen organoak zehaztuko du gaikuntza hori zenbat denborarako den, eta galdu egingo da baldin eta interesatuak berak eskatzen badu edo baldintzak ez badira betetzen.

Halaber, honako hauek egiteko gaitu ahal izango da albaitaria: osasun-egiaztagiri ofizialak, Dekretu honen eremuko egiaztagiriak eta/edo Txakurraren Kartilla Ofizialean egin beharreko oharra. Txakurraren Kartilla Ofizialaren eredia Nekazaritza eta Arrantza sailburuak ezarriko du.

4.- Animalia identifikatzen ari den albaitari ofizialak edo gaituak Txakurraren Kartilla Ofiziala eta agiri bat beteko ditu. Agiri horren bidez, batetik, identifikatu egingo da txakurra; eta bestetik, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Agindu baten ondorioz sortu zen EAeko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (aurrerantzean AIEO) animalia erregistratzeko eskabidea egingo da. Agiri hori —zenbakitua eta hiru aletan— eskuragarri izango dute interesatuek albaitari ofizialen edo gaituen bulegoetan; Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak banatuko du. Ale bat lanean diharduen albaitariaren eskuetan egongo da, eta beste bi aleak animalia-aren jabeari emango zaizkio; aleetako bat Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailera bidali beharko dute NANaren fotokopiarekin batera, aipaturiko erregistroan datuak sartu ahal izateko. Halaber, albaitariak txakurren erroldako web-orrian sartu beharko dituzte agiri horretako datuak.

5.- AIEOko datuak, behin sartzen direnean, Udalek eta Foru Aldundiek hartuko dituzte, eta animalia dagokion udalerrian erroldatuta geldituko da. Hala ere, datu horien erabilerak eta tratamenduak bat etorri beharko du animaliak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin.

6.- Ez erroldatzea, edo epez kanpo erroldatzea, arauhaustea izango da animaliak babesteari buruzko Legearen 27.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. artikulua.— Datuak aldatzeko eta erregistroan baja emateko prozedura.

1.- Animalia-aren jabeak AIEOri jakinarazi behar dio erregistroko daturen bat aldatzen bada; zehazki, honako aldaketa hauen berri eman beharko du:

a) Jabeari eta/edo txakurrari buruzko datuak aldatzea.

b) Jabea aldatzea.

c) Poseer el equipo homologado adecuado para la identificación.

Si la documentación es correcta, el órgano foral correspondiente resolverá en el plazo máximo de tres meses, entendiéndose otorgada la habilitación de no recaer resolución expresa. La habilitación tendrá la vigencia que determine el órgano otorgante y se perderá por renuncia o por incumplimiento de los requisitos.

Asimismo, se podrá habilitar al veterinario para expedir certificaciones oficiales sanitarias, certificaciones referidas al ámbito del presente Decreto y/o para realizar las oportunas anotaciones en la Cartilla Oficial Canina. El modelo de la Cartilla Oficial Canina aquí prevista se establecerá mediante Orden del Consejero de Agricultura y Pesca.

4.- En el momento de la identificación del animal, el veterinario oficial o habilitado actuante rellenará la Cartilla Oficial Canina y un documento de identificación y solicitud de inscripción en el Registro General de Identificación de Animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en delante RE.G.I.A., creado en virtud de la Orden de 5 de mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca. El documento, numerado y por triplicado ejemplar, estará a disposición de los interesados en los despachos de los veterinarios oficiales o habilitados y será suministrado por el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco. Un ejemplar quedará en poder del veterinario actuante, entregando los otros dos al propietario del animal que deberá remitir uno de ellos al Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, junto con la copia del D.N.I., para proceder a la inscripción de los datos en el meritado Registro. Asimismo, los veterinarios deberán incorporar los datos del documento a la Web del censo canino.

5.- Los datos obrantes en el RE.G.I.A. serán extraídos, desde el mismo momento de su incorporación, por los respectivos Ayuntamientos y Diputaciones Forales, quedando así el animal censado en el municipio que le corresponda. En todo caso, el uso y tratamiento de los datos contenidos será acorde con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal.

6.- La falta de identificación censal, o la no realización de la misma en el plazo previsto, constituirá infracción a tenor de lo establecido en el artículo 27.1 a) de la Ley de Protección de los Animales.

Artículo 3.— Procedimiento de modificación de datos y baja registral.

1.- El propietario del animal deberá comunicar al RE.G.I.A., cualquier variación de los datos contenidos en el citado registro y en concreto los siguientes:

a) Modificación de los datos relativos al titular y/o perro.

b) Cambios de titularidad

c) Txakurrari baja ematea, hil egin delako edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora eraman delako behin betiko.

d) Txakurra galtzea edo lapurtzea.

10 eguneko epean eman beharko da horren berri. Txakurra galtzen bada, edo norbaitek lapurtzen badu, ordea, epea 5 egunekoa izango da, galtze- edo salaketa-egunetik aurrera kontatzen hasita.

Aldaketa eskatzeko edo gertakaria jasotzeko, Udaltan, Foru Aldundietan edo gaitutako albaitarien bulegoetan eskuragarri egongo den agiri bat erabiliko da (NANaren kopia erantsi beharko zaio). Agiri horretako datuak txakurren erroldaren web-orrian sartu beharko dituzte Udalek, Foru Aldundiek eta albaitariak. a), c) eta d) puntuetan adierazten diren egoeretan, interesatuak dagokion alea bidali beharko du AIEOra; b) puntuan adierazitakoa gertatzen denean, berriz, hurrengo paragrafoan adierazi bezala jokatuko da.

2.- Salmenta, dohaintza edo indarrean dagoen legerian ezarritako beste moduren bat erabilita, eskualdatze bat egiten denean, parte hartzen duten aldeek aldaketa eskatzeko agiria bete beharko dute (agiri horrek zenbaki bat eramango du, eta lau ale bete beharko dira). Aurreko paragrafoan adierazitako erakundeetako batek edo albaitari gaitu batek Txakurraren Kartilla Ofizialean jaso eta ikus-onetsiko du eskualdatze hori, eta erabilitako agiriaren zenbakia ere adieraziko du. Ale bat parte hartu duen erakunde edo albaitariaren eskuetan geldituko da, beste ale bat animalia eskualdatu duenaren eskuetan, eta beste bi aleak, berriz, jabe berriak jasoko ditu. Jabe berri horrek, AIEOra bidali beharko du ale bat; hilabete izango du horretarako, eskualdatzea egiten denetik kontatzen hasita.

3.- Txakurra saldu edo eman ahal izateko betebeharra izango da jabe berriari behar bezala identifikatuta eta erroldatuta dagoen eta Txakurraren Kartilla Ofiziala eguneratuta duen txakurra entregatzea.

4.- Artikulu honetan adierazi diren erroldatzeari buruzko aldaketak Erregistroari ez jakinaraztea arauhaustea izango da animaliak babesteko Legearen 27.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. artikulua.— Jabearen edo edukitzailearen betebeharrak.

1.- Txakurrak eduki ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte jabeek: janaria, edaria eta osasun-asistentzia emango diete, eta txakurraren behar fisiologiko eta etologikoetara egokitutako instalazioak izango dituzte —bai espazioari dagokionez, bai higiene/osasunari dagokionez—, halaxe xedatzen baita animaliak babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 4. artikuluan.

Paragrafo honetan ezarritakoa ez betetzea arauhaustea izango da aipaturiko Legearen 27.2 a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Baja del perro motivada por el fallecimiento o por el traslado definitivo fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco

d) Desaparición por pérdida o robo.

La comunicación deberá realizarse en el plazo de 10 días salvo en el caso de pérdida o robo que deberá efectuarse en el plazo de 5 días desde el extravío o denuncia aportando una copia de la denuncia.

La solicitud de modificación o incidencia, a la que se adjuntará copia del DNI, se realizará mediante un documento que estará a disposición de los interesados en los Ayuntamientos y Diputaciones Forales, así como en los despachos de los veterinarios habilitados, quienes deberán incorporar los datos del documento a la Web del censo canino. En los casos previstos en los puntos a), c) y d), el interesado remitirá el ejemplar oportuno al R.E.G.I.A. Para los casos previstos en el apartado b) se estará a lo dispuesto en el párrafo siguiente.

2.- Cuando se produzca una transmisión, por venta, donación o cualquier otra forma prevista en la legislación vigente, las partes actuantes deberán rellenar el documento de solicitud de modificación, numerado y por cuadruplicado ejemplar. La anotación y visado de la transmisión en el Cartilla Oficial Canina deberá realizarla una de las instancias referidas en el párrafo anterior, debiendo anotar en la misma el número de documento utilizado. Un ejemplar quedará en poder de la instancia actuante, otra en poder del transmisor, y dos en poder del nuevo propietario que será el obligado a remitir al R.E.G.I.A. un ejemplar en el plazo de un mes desde la fecha de transmisión.

3.- Cualquier venta o cesión conllevará la obligación de entregar al nuevo propietario los animales debidamente identificados, censados y con la Cartilla Oficial Canina actualizada.

4.- La falta de comunicación al Registro de las variaciones en la identificación censal contenidas en este artículo, constituirá infracción a tenor de lo establecido en el artículo 27.1 a) de la Ley de Protección de Animales.

Artículo 4.— Obligaciones del propietario o poseedor.

1.- La tenencia de animales de la especie canina estará condicionada al hecho de que el propietario de aquéllos les procure alimentación, bebida y asistencia sanitaria, así como unas instalaciones adecuadas a sus necesidades fisiológicas y etológicas, tanto de espacio como en el aspecto higiénico-sanitario, de conformidad con lo establecido en el artículo 4 de la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales.

El incumplimiento de lo establecido en este párrafo será considerado infracción grave a tenor de lo establecido en el artículo 27.2 a) de la misma disposición.

2.– Hiri barruko bide eta gune publikoetan, bai eta eraikin kolektiboen gune komunetan ere, txakurrak kontrolatuta eramango dira beraien ezaugarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta —gehienez, 2 metrokoa—. Betebehar hori ez betetzea arau-hauste larria izango da animaliak babesteari buruzko Legearen 27.2 h) artikulua araberera.

Udalak, euren eskumenen eremuan, txakurren aisialdirako guneak prestatzen saiatuko dira.

3.– Debekatuta dago txakurren gorozkia bide eta plaza publikoetan, haur—parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurarako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uztea. Debeku horri jaramonik ez egitea, arau-hauste larria izango da Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 34.4.c) artikulua araberera.

4.– Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren araberera, txakurraren edukitzailea edo hartaz baliatzen ari dena izango da txakurrak sortzen dituen kalte, galera eta arazoan erantzulea; baita txakurrak alde egin badio edo galdu egin bazaio ere.

5.– Txakurren jabeak edo edukitzaileak behartuta daude eskumena duen organoak eskatzen dien informazioa eta datuak ematera.

5. artikulua.– Txakurrak edukitzeak dituen mugak.

1.– Oro har, eta etologia-arrazoiak direla medio, 40 metro karratuko, urtebetez gorako txakur bakar bat bizi ahal izango da, bai Jabetza Horizontalari buruzko Legearen menpe dauden eraikin kolektiboetan, bai, balkoi, garaje, pabilioi, ganbera, zabaltza, lorategi edo bestelako lokal edo hiri-lurretan. Ratio hori eskumena duen udal-organoak aldatu ahal izango du, Udaleko Zerbitzu Teknikoek baloratu ondoren.

2.– Debekatuta dago, oro har, honako hauek egitea:

a) Fabrikazio, salmenta, biltegiatze, garraio eta elikagai-maneirako erabiltzen diren lokal edo ibilgailuetan txakurrak sartzea eta bertan edukitzea.

b) Ikuskizun publikoak dauden lokaletan txakurrak sartzea eta bertan edukitzea, baita igerileku publiko eta lokal sanitarioetan ere, baldin eta euren arau espezifikoek debekatzen badute.

3.– Aurreko paragrafoetan ezarritakoa ez betetzea arau-hauste larria izango da Animaliak Babesteari buruzko Legearen 27.2.a) artikuluan ezarritakoaren araberera.

4.– Bigarren idatz-zatian adierazitakoetan sartzen ez diren eta herritarrentzako irekita dauden denda batzuen jabeek ere txakurrak euren dendetan sartzea eta bertan egotea debeka dezakete; debeku hori argi eta garbi adierazi beharko da dendaren sarreran.

2.– En las vías y espacios públicos urbanos, así como en las partes comunes de los inmuebles colectivos, los animales de la especie canina deberán ir bajo control y sujetos mediante el uso de una cadena o correa adecuada a las características del animal y con una longitud máxima de dos metros. El incumplimiento de esta obligación constituirá infracción grave de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27.2 h) de la Ley de Protección de los Animales.

Los Ayuntamientos, en el ámbito de sus competencias, procurarán habilitar zonas de esparcimiento para animales de la especie canina.

3.– Queda prohibido abandonar las deyecciones de los perros en vías y plazas públicas, parques infantiles, jardines, y en general, en cualquier lugar destinado al ornato y/o tránsito de personas, constituyendo infracción leve a tenor de lo establecido en el artículo 34.4.c) de la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos y resto de normativa que pueda ser de aplicación.

4.– El poseedor de un perro, o el que se sirve de él, será responsable de los daños, perjuicios y molestias que causare, aunque se le escape o extravíe, conforme a lo fijado por el artículo 1905 del Código Civil.

5.– Los propietarios o poseedores de perros están obligados a suministrar datos o facilitar la información requerida por la autoridad competente.

Artículo 5.– Limitaciones a la tenencia de perros.

1.– Con carácter general y por razones etológicas, únicamente se podrá alojar un perro mayor de un año por cada 40 m², tanto en los inmuebles colectivos sometidos a la Ley de Propiedad Horizontal, como en balcones, garajes, pabellones, sótanos, azoteas, jardines o cualquier otro local o terreno urbano. Este ratio podrá ser modificado a juicio de la autoridad municipal competente previa valoración de los Servicios Técnicos Municipales.

2.– Quedan expresamente prohibidas, con carácter general, las siguientes conductas:

a) La entrada y permanencia de perros en locales o vehículos destinados a la fabricación, venta, almacenamiento, transporte y manipulación de alimentos.

b) La entrada y permanencia de perros en aquellos locales en los que se celebren espectáculos públicos, así como en las piscinas públicas y locales sanitarios y similares cuyas normas específicas los prohíben.

3.– El incumplimiento de lo establecido en los párrafos anteriores constituirá infracción grave tenor de lo dispuesto en el artículo 27.2 a) de la Ley de Protección de los Animales.

4.– Los titulares de otros establecimientos abiertos al público, distintos a los señalados en el apartado 2, podrán prohibir a su criterio la entrada y permanencia de perros en los mismos, señalando visiblemente en la entrada tal prohibición.

5.— Txakurrak hondartzetan eta/edo inguruetan sarzteko debekua eskumena duen udal-organoak ezarriko du, eta zehaztu egin beharko du, baldin eta baimenik ematen badu, hondartza guztian, zati batean edota hondartzaren inguruetan ibiltzeko baimena den; horren berri eman egin beharko da hondartzaren sarreran.

6.— Gaixotasun zoonosikoak egon daitezkeenaren susmoa badago, udal- edo foru-aginteak pertsonak ez kutsatzeko beharrezko jotzen dituen neurri sanitarioak ezarriko ditu: albaitari-azterketak, tratamenduen egiaztatzea, berrogeialdia edo txakurraren konfiskazioa; osasun-agintearen epidemiologia-unitateari horren berri eman beharko zaio.

7.— Komunitate batenak diren leku pribatuetan —sozietate kulturalak, jolaserako sozietateak, auzo-komunitate baten gune komunak,...— txakurrak sartu eta bertan eduki ahal izango dira, baldin eta leku horretako arauak horretarako eskubidea aitortzen badute.

8.— Gune pribatu batean egon behar dutenean, itxirtura perimetral osoa duen eta altuera eta material egoiak dituen esparru bat izango dute; gune horretan libreki ibiltzea eta erabilera komuneko gune publiko edo pribatuetara inolako kontrolik gabe eta eutsi gabe ataritzea ekidingo da horrekin.

9.— Igogailuetan txakurrak igotzea edo jaistea baimenduta badago ere, txakurrik gabe doazenek lehentasuna izango dute.

10.— Poliziaren edo militarren txakurrei eta behar bezala baimendutako segurtasun-enpresetako txakurrei ez zaie aplikatuko artikuluko hau, baldin eta ezarritako mugek mota horretako txakurrek dituzten funtzioak betetzea eragozten badie —salbuespen hori funtzio horiek betetzen ari diren denborarako bakarrik izango da—.

6. artikulua.— Nola jardun txakurrak eraso egin badu.

1.— Txakur batek pertsona bat eraso izanaren salaketa jaso duen edo horren berri izan duen administrazio-erakundeak eraso egin duen txakurra edo haren jabea indentifikatzen lagunduko duen datu oro bilduko du salatzailearengandik edo jakinarazpena egin duenarengandik. Eta berehala jarriko ditu datu horiek administrazio-espedienteaz arduratuko denaren eskuetan; alegia, txakurra erroldatuta dagoeneko, eta halakorik ezean, jabea bizi deneko udalerrira arduratuko da hortaz, eta dokumentazio guztia udalerrri horretara eramango da.

2.— Erasotzerakoan hozka egin badu eta horrek lesio bat sortu badu, eskumena duen erakundeak espediente ireki dela jakinaraziko die Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Unitateari eta Foru Aldundieta-k Abere Osasuneko Zerbitzuei.

5.— La limitación o prohibición referida al acceso de los perros a las playas y/o zonas anexas podrá ser impuesta por la autoridad municipal competente quien determinará, en caso de autorización, si la misma se refiere a la totalidad o parte de la playa y/o zona anexa, debiendo señalar tal circunstancia en el acceso a la misma.

6.— Ante la sospecha de enfermedades zoonóticas, la autoridad municipal o foral podrá determinar cuantas medidas sanitarias se requieran con el fin de evitar contagios a las personas; medidas tales como reconocimientos veterinarios, verificación de tratamientos, cuarentena o decomiso del perro, debiéndolo poner en conocimiento de la unidad epidemiológica de la autoridad sanitaria.

7.— El acceso y permanencia de los perros en lugares comunitarios privados, tales como sociedades culturales, recreativa, zonas de uso común de comunidades de vecinos etc, estará sujeto a las normas que rijan en dichas entidades.

8.— Mientras sean mantenidos en espacios privados, dispondrán de un recinto con cerramiento perimetral completo y de altura y materiales adecuados que evite, tanto su libre circulación, como la salida a espacios públicos o privados de uso común sin el debido control y sujeción.

9.— Cuando esté permitida la subida o bajada de perros en aparatos elevadores, tendrá preferencia para su utilización aquellas personas que no vayan acompañadas de perros.

10.— Los perros pertenecientes a los cuerpos policiales o militares y a las empresas de seguridad debidamente autorizadas, estarán excluidos del ámbito de aplicación del presente artículo siempre que las limitaciones establecidas impidan la realización de las funciones propias de la condición de tales perros y durante el tiempo que se lleven a cabo las mismas.

Artículo 6.— Procedimiento ante una agresión.

1.— La autoridad administrativa ante quien se denuncie o se ponga en conocimiento la agresión causada por un perro a una persona, recabará del denunciante o de quien comunica los hechos, cualquier dato que procure la identificación del propietario y/o del perro causante de la agresión, poniéndolo inmediatamente en conocimiento de la autoridad encargada de la tramitación del expediente administrativo, que será el ayuntamiento donde esté censado el perro o en su defecto donde resida el propietario, trasladándole toda la documentación.

2.— En el caso de que la agresión lleve aparejada lesiones causadas por mordedura la autoridad competente en la tramitación comunicará a la Unidad de Vigilancia Epidemiológica del Departamento de Sanidad y a los Servicios de Sanidad Animal de las Diputaciones Forales la apertura del expediente.

Lesioak sortu dituen txakurraren jabeak 24 ordu izango ditu txakurra berak aukeratutako albaitari ofizial edo gaitu batengana eramateko; txakurrak behaketan egon beharko du 14 egunez, baina egun-kopuru hori aldatu egin ahal izango da unean uneko baldintza epizootiologikoei hala gomendatzen badute, eta betiere, txosten tekniko bat ematen bada arrazoiak emanez. Epe hori igaro, eta jabeak txakurra albaitariarengana eraman ez badu, eskumena duen udal-organoak eraman dezan eskatuko dio, eta txakurra animaliak jasotzen dituen zentro batean sartzeko eta/edo isolatzeko agindu ahal izango du. Txosten edo egiaztagiririk ematen bada, txakurraren jabeak ordaindu beharko du. Txakurrak jabe edo edukitzeaile jakinik ez balu, gertatutakoaren berri duen administrazioa izango da txakurra jaso eta behaketan jartzeko ardura izango duena. Espedientea izapidetzen ari den udalari jakinarazi egin beharko zaio txakurra behaketan dagoela; 72 ordu izango ditu horretarako, gertakaria jazotzen denetik aurrera.

Albaitariak behaketa egingo du zoonosia izateko arriskua dagoen ala ez ikusteko eta animalia eraman arriskutsua izan daitekeen ala ez ebaluatzeko; eta 0 eranskinean dagoen ereduari jarraituz, emaitzari buruzko egiaztagiria/txostena bidali beharko du. Jabeak, behin txakurrari behaketa egin zaionez, 48 ordu izango ditu albaitariaren egiaztagiria/txostena espedientea izapidetzen ari den Udalari —lehen paragrafoan adierazitakoari— bidaltzeko, Udal horrek espedientean sar dezan. Udalak, dagokion Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzura eta Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Zerbitzura bidali beharko du kopia bat. Behaketa hori egin ondoren arrisku sanitarioa dagoela ikusten bada, horretan diharduen administrazioak txakurra zentro batean sartzeko eta/edo isolatzeko edo, egoera horretan egonez gero, berdin jarraitzeko agindua eman dezake.

3.— Erasotzerakoan hozkadarik egin ez bada, jabeak berak nahi duen albaitari ofizial edo gaitu batengana eraman beharko du txakurra; albaitariak animalia eraman arriskutsua den ala ez ebaluatuko du, eta egiaztagiri bat emango du. Jabeak espedientea izapidetuko duenari bidali beharko dio egiaztagiri hori

7. artikulua.— Baldintza berezi batzuk betez eduki behar diren txakurrak.

1.— Txakur baten baldintza etologikoei eskatzen badute, txakurra errolatuta dagoeneko edo jabea bizi deneko udalerriko organo eskudunak baldintza berezi batzuk ezarriko ditu txakur hori edukitzeko. Ebazpen hori AIEOri jakinarazi beharko zaio, eta baldintza berezi horiek zeintzuk diren zehaztuta egongo da bertan; hala nola, muturrekoa eramatea, 2 metro baino gutxiagoko uhala erabiltzea, arnesik ez erabiltzea, ezaugarri berezi batzuk dituzten leku pribatuetan txakurrak ez edukitzea, edo eskumena duen erakundeak beharrezko josten duen beste edozein baldintza. Baldintza berezi horiek guztiak Txakurraren Kartilla Ofizialean jaso be-

El propietario del perro causante de las lesiones, en el plazo de 24 horas, deberá someterlo a observación por parte del veterinario oficial o habilitado de su elección durante catorce días, o por un periodo de tiempo distinto cuando las circunstancias epizootiologicas de cada momento así lo aconsejen y previo informe técnico motivado. Si transcurrido dicho plazo no lo hubiese hecho de manera voluntaria, la autoridad municipal competente, le requerirá para hacerlo, pudiendo ordenar el internamiento y/o aislamiento del perro en un centro de recogida de animales. En todo caso, el coste del informe o certificado emitido, si lo hubiere, corresponderá al propietario del perro. En el caso de que el perro no tuviera propietario o poseedor conocido la Administración concedora de los hechos será la encargada de su recogida y puesta en observación. Esta puesta en observación deberá comunicarla al ayuntamiento competente en la tramitación del expediente dentro del plazo de 72 horas de ocurridos los hechos.

El veterinario deberá realizar la observación para descartar o detectar riesgos de zoonosis y para evaluar el potencial riesgo del carácter del animal, emitiendo el correspondiente certificado / informe del resultado de la misma conforme al modelo del anexo 0. El propietario, terminada la observación, deberá remitir en el plazo de 48 horas el certificado / informe veterinario a la autoridad competente en la tramitación del expediente, señalada en el párrafo primero, para su incorporación al mismo, quien a su vez remitirá una copia del certificado / informe veterinario al Servicio de Ganadería de la Diputación Foral correspondiente y a Unidad de Vigilancia Epidemiológica del Departamento de Sanidad. Si del resultado de la observación practicada se infiriesen circunstancias de riesgo sanitario, la Administración actuante podrá ordenar la prórroga o establecimiento del internamiento y/o aislamiento del perro.

3.— Si la agresión no lleva aparejada lesiones causadas por mordedura el propietario del perro deberá someterlo a observación por parte del veterinario oficial o habilitado de su elección, para evaluar el potencial riesgo del carácter del animal, durante el tiempo que éste estime necesario, emitiendo el oportuno certificado que será remitido por el propietario a la autoridad competente para la tramitación del expediente.

Artículo 7.— Perros sometidos a condiciones especiales para su tenencia.

1.— Cuando circunstancias etológicas de un ejemplar concreto lo requieran, la autoridad competente del municipio donde esté censado el perro o del lugar de residencia de su propietario, podrá someter al animal a condiciones especiales para su tenencia. La resolución, que deberá ser notificada al R.E.G.I.A., establecerá dichas condiciones especiales tales, como utilización de bozal, correa de menos de 2 metros, prohibición de utilización de arneses, mantenimiento en espacios privados con determinadas características o cualesquiera otras que la autoridad estime oportuna, debiendo proceder a la anotación en la Cartilla Oficial Canina. La imposi-

harko dira. Aipatutako baldintza horiek ezartzen badira, jabeak erantzukizun zibileko aseguru bat egin beharko du, 12. artikuluan ezarritako moduan —arrisku-tsuak izan daitezkeen txakurren erantzukizun zibileko aseguruaz dihardu artikulua horrek—.

2.— Baldintza bereziak betez eduki beharreko txakurraren jabeak ezarritako baldintza berezi horiek kentzea eska dezake, aurreko paragrafoan adierazten den ebazpenaren jakinarazpena jaso, eta urtebeteko epean. Eskabidearekin batera albaitariaren edo 24. artikuluan ezarritakoaren arabera baimendutako trebatzailearen txosten arrazoitua aurkeztu beharko da. Eskabide hori txakurra baldintza berezi batzuk betez edukitzeko agindu zuen organoari berari aurkeztuko zaio.

3.— Baldintza bereziak betez eduki behar den txakurraren titular, jabe edo edukitzaileak baldintza horien berri eman beharko dio titular, jabe edo edukitzaile berriari, transferentzia egin aurretik.

4.— Ezarritako baldintza horiek ez betetzea arauhauste larria izango da animaliak babesteari buruzko Legearen 27.2 h) artikuluaaren arabera.

8. artikulua.— Txakurra abandonatzea eta txakur horiek jasoko dituzten zentroak.

1.— Animaliak Babesteari buruzko Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, abandonatutako txakurtzat hartuko da identifikatu gabe dagoen eta bakar-bakarrik dabilen txakurra; txakur abandonatua izango da, halaber, nahiz eta identifikatuta egon, jabeak edo baimendutako pertsonak galdu egin dela salatzen ez bada ezarritako epean.

2.— Eskumena duten Udalek eta Foru Aldundiek jasoko dituzte abandonatutako txakurrak, bai eta identifikatuta egon arren, jabearen inolako kontrolik gabe noraezean dabilen txakurrak ere. Txakur horiek erakunde horien eskuetan egongo dira, harik eta berreskuratzen, ematen edo hiltzen diren arte.

Horretarako, Udalek langile eta instalazio egokiak izan behar dituzte, edo bestela, hitzartu egingo dituzte zerbitzu horiek honako erakunde hauekin guztiekin: Administrazioarekin lankidetzan diharduten animaliak babesteko eta defendatzeko elkarteekin, udalaz gaindiko erakundeekin, Foru Aldundietako organo eskudunekin, edo gune zoologikoen baimen, erregistro eta kontrolari buruzko Dekretuaren arabera baimendutako txakurren nukleo zoologikoekin.

3.— Identifikatu gabe dagoen txakur bat, gutxienez, 30 egun eduki beharko da hartuta. Epe hori igaro eta txakurrarengatik inork galdetu ez badu, hil egingo da —aurrez identifikatuta—, norbaitek bere egingo du, edo hirugarren bati emango zaio.

Txakurra identifikatuta badago, jabeari jakinaraziko zaio froga eta guzti txakurra jaso edo hartu egin dela, eta jabeak 7 egun baliadun izango ditu txakurra be-

ción de las condiciones mencionadas obligará al propietario del perro a suscribir un seguro de responsabilidad civil en los mismos términos que lo establecido en el artículo 12 para los perros potencialmente peligrosos.

2.— El propietario del perro sometido a condiciones especiales podrá solicitar, en el plazo de un año desde la notificación de la resolución a la que se refiere el párrafo anterior, el levantamiento de las condiciones especiales impuestas. La solicitud deberá ir acompañada del informe motivado del veterinario o del adiestrador autorizado conforme a lo establecido en el artículo 24. La solicitud se presentará ante el mismo órgano que decretó el sometimiento del perro a condiciones especiales.

3.— El titular, propietario o tenedor de un perro sometido a condiciones especiales, está obligado a informar sobre dichas condiciones, con carácter previo a la transferencia, al nuevo titular, propietario o tenedor.

4.— El incumplimiento de las condiciones impuestas constituirá infracción grave de conformidad con lo establecido en el artículo 27.2.h) de la Ley de Protección de los Animales.

Artículo 8.— Abandono y centros de recogida de perros.

1.— De conformidad con lo establecido en el artículo 14 de la Ley de Protección de los Animales, se considerará perro abandonado aquel que no lleve ninguna identificación, ni vaya acompañado de persona alguna, así como aquel que, portando su identificación, no haya sido denunciado su extravío por su propietario o persona autorizada en el plazo establecido.

2.— Corresponderá a los Ayuntamientos y Departamentos competentes de las Diputaciones Forales la recogida de los perros abandonados y de aquellos que, aun portando identificación, vaguen libremente sin control de sus poseedores, reteniéndoles hasta que sean recuperados, cedidos o sacrificados.

A tal fin, los Ayuntamientos deberán disponer de personal e instalaciones adecuadas o concertar la prestación de dichos servicios con asociaciones de protección y defensa de animales colaboradoras de la Administración, con entidades supramunicipales, con órganos competentes de las Diputaciones Forales, o con los núcleos zoológicos de perros autorizados como tales conforme al Decreto sobre autorización, registro y control de núcleos zoológicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.— El plazo de retención de un perro sin identificación será como mínimo de 30 días naturales. Transcurrido dicho plazo sin que fuera reclamado, podrá ser sacrificado, previa identificación, podrá ser objeto de apropiación, o cedido a un tercero.

Si el perro lleva identificación, se notificará fehacientemente su recogida o retención al propietario, quien dispondrá de un plazo de 7 días hábiles para recuperar-

rreskuratzeko; aurrez, txakurra zentro horretan edukitzeak sortu dituen gastuak ordaindu beharko ditu. Epe hori igaro eta jabeak txakurra berreskuratu ez bada, adierazitako hori egingo zaio txakurrari.

4.- Txakur bat abandonatzea arau-hauste oso larria izango da Animaliak Babesteari buruzko Legearen 27.3 b) artikuluaen arabera.

9. artikulua.- Hiltzea.

1.- Administrazioaren zehapen-prozedura baten ondorioz, arau-haustea eragin duen txakurra konfiskatzea erabakitzen bada, Udal Administrazioak txakurra hiltzea erabaki dezake, Animaliak Babesteari buruzko Legearen edo segurtasun publikoari buruzko estatuko araudian ezarritakoaren arabera. Prozedura judiziala erabili behar denean, eskumena duen organo jurisdikzionalak xedatutakoari jarraituko zaio.

2.- Dagokion araudian ezarritako arrazoi sanitarioak eta segurtasun publikokoak alde batera utzita, Administrazio Publikoen eskuetan dauden animaliak kasu honetan bakarrik hil ahal izango dira: eska daitekeen guztia egin arren edukitzaile pribaturik aurkitzen ez denean, eta txakurrak jasotzeko instalazioetan denbora gehiago edukitzea ezinezkoa denean.

3.- Albaitari baten kontrolpean eta erantzukizunpean hil beharko da txakurra. Animalia hiltzeko erabiliko diren produktuek, lehenik eta behin, ahalik eta azkarrena anestesia-egoera sakon bat lortzea ahalbidetu beharko dute, txakurrak berehalakoan konortea galdu dezan eta hiltze-prozesu horretan batere sufri ez dezan.

Behin anestesi-egoera sakon hori lortu denean, animalia azkar hilko duen produktu bat erabiliko da; barbiturikoaren dosi handiak eta/edo kurarearen eragina izango duten medikamentuak erabili ahal izango dira. Modu horretan txakurra hiltzeko medikamentu bakarra erabiltzea nahikoa ez bada, hainbat medikamentu konbinatu ahal izango dira.

4.- Txakurrak hiltzeko metodo eta prozedurak Euskal Autonomia Erkidegoko animaliak hiltzeko unean babesteari buruzko azaroaren 22ko 454/1994 Dekretuan ezarritakoaren arabera izango dira.

5.- Txakurren gorpuk hiri- edo udal-hondakintzat joko dira Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 3.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Lege horri jarraituko zaio gorpu horiek eliminatzeko; hori guztia gizakien kontsumorako ez diren animalien azpiproduktuentzako neurri sanitarioak ezartzeari buruz Europako Parlamentuko 1774/2002 Araudiko (EE) 24. artikuluan eta 2002ko urriaren 3ko Kontseiluan xedatutakoari jarraituz egingo da.

